| LAN PROGRAMAREN 17 PROIEKTUAK | | | |
|---|---|---|---|
| **1. ardatza** | **2. ardatza** | **3. ardatza** | **4. ardatza** |
| **Gizartearen kohesioa eta kulturen eta erlijioen integrazioa** | **Segurtasuna eta polizia-lanak (prebentzioa eta erantzuna)** | **Prebentzioa gizartean eta hezkuntzan erradikalizazio biolentoa ez gertatzeko** | **Jarrera politikoa EAEn eta nazioartean** |
| **1. proiektua.** Gizartearen kohesioa Konpromisoari eustea gizarte-politikekin eta kulturarteko bizikidetzarekin, eta sinergia Ikuspegi eta Biltzen bezalako erakundeekin.<br><br>**2. proiektua.** Erlijioen arteko bizikidetza. Bultzada Kultu Zentroei buruzko Legeari eta erlijioen mapa eta erregistroa duen erlijioen arteko elkarrizketa-agenda bati.<br><br>**3. proiektua**. Giza Eskubideen Kultura**.** Herritarren inplikazioa sustatzea aniztasunaren bultzadan eta terrorismoaren eta xenofobiaren aurkako gizarte-mobilizazioan. | **4. proiektua**. Prebenitzea. Erradikalizazioaren aurkako borroka. Berekin dakar diskriminazioaren aurrean jardutea eta epe luzeko kulturarteko elkarrizketan eta integrazioan.<br><br>**5. proiektua**. Babestea. Herritarrak eta azpiegiturak defendatzea, eta atentatu hipotetiko baten aurrean dauden ahultasunak murriztea.<br><br>**6. proiektua.** Jazartzea. Terroristak jazartzea, ikertzea eta atxilotzea, eta horien finantzabideetan edo beste edozein sostengu-baliabidetan jardutea.<br><br>**7. proiektua.** Erantzutea. Protokolo eguneratu bat izatea atentatu posible baten aurrean erantzun operatiboa, biktimen arreta eta informazioa lortzeko. | **8. proiektua**. Prestakuntza. Prestakuntza-modulu baten garapena erlijioa aitzakiatzat hartzen duen erradikalizazio biolentoaren edo izaera xenofobo, islamofobo edo arrazistaren prebentzioari buruz.<br><br>**9. proiektua**. Hezkuntza. “Ikasle etorkinei hezkuntza-arreta ematea”, “Eskolak munduari dei egiten dio” eta “Bizikasi ekimena” programak garatzea.<br><br>**10. proiektua**. Hedapena. Kultura- eta erlijio-aniztasuneko tokiko giden bultzada eta arlo horretan gogoeta hezigarriko ekitaldiak egitea.<br><br>**11. proiektua**. Esku-hartze espezifikoak. Tutoretzapeko etxebizitza eta espetxeetan erradikalizazioa prebenitzeko hezkuntza-moduluak prestatzea. | ***Jarrera politikoa EAEn***<br>**12. proiektua**. Mobilizazioa erlijioa aitzakiatzat hartzen duen terrorismoaren edo izaera xenofobo,islamofobo o arrazistako indarkeria-adierazpideen aurrean.<br><br>**13. proiektua**. Konpromisoa terrorismoaren biktimekin. Atentatua badago terrorismoaren biktimei arreta solidario eta efizientea emateko protokoloa prestatzea.<br><br>**14. proiektua**. Topaketa soziala. Kulturen eta erlijioen arteko bizikidetzaren arloko Bizikidetza eta Giza Eskubideen Planaren 7., 8., 9. eta 10. ekimenak garatzea.<br><br>***Jarrera politikoa nazioartean***<br><br>**15. proiektua**.Kanpo Harremanak. Plan honen tesien nazioarteko defentsa, eta oso bereziki polizia-koordinazioaren eta adimenaren arloan.<br><br>**16. proiektua**. Ekintza humanitarioa. Lankidetza humanitarioko konpromisoa gerraren, nazioarteko terrorismoaren edo indarkeriaren eraginpeko testuinguruetan.<br><br>**17. proiektua**. Prebentziozko ekintza. Gerraren, nazioarteko terrorismoaren edo indarkeriaren eraginpeko eskualdeetan modu prebentiboan jardungo duten proiektuak sostengatzea. |

(*) Eusko Jaurlaritzak sailarteko batzorde bat finkatuko du jarduera-plan honen kudeaketaren dinamizazio eta bultzada koordinatua egiteko, osoko ikuspegi batekin.

# EUSKO JAURLARITZAREN JARDUERA PLANAREN AKORDIO ESTRATEGIKOEN PROPOSAMENAREN LABURPENA

**1. Akordio-proposamena. Euskadiko Komunitate Islamiarrekiko Lankidetzarako Aholku Batzordea sortzea.** Batzorde honen funtzioa izango da Euskadiko euskal errealitate islamiarra eta haren eta euskal erakundeen arteko lankidetza instituzionalizatzea. Batzorde honek euskal islam tolerante, ireki eta erlijioa aitzakiatzat hartzen duen terrorismoaren aurkakoa aitortzeko eta sustatzeko borondate partekatua landuko du.

**2. Akordio-proposamena. Erlijioarteko Euskal Kontseilua sortzea.** Bere helburua aniztasunaren errespetuan oinarritutako erlijioen eta kulturen arteko bizikidetza bat sustatzea izango da. Ordezkatuta egongo dira Euskadin errotze nabarmeneko aitorpena duten erlijioak. Bere funtzioetako bat izango da erlijioa aitzakiatzat hartzen duen terrorismoaren edo xenofobiaren, islamofobiaren edo arrazismoaren edozein formaren aurkako erantzunean erreferente gisa jardutea.

**3. Akordio-proposamena. Erradikalizazioaren Identifikazio Goiztiarrerako Foroa sortzea.** Foro hau Ertzaintzak dinamizatuko du eta Euskadiko komunitate islamiarretako kideen eta Eusko Jaurlaritzaren hezkuntza-arloko adituen zuzeneko parte-hartzea izango du.

**4. Akordio-proposamena. Poliziaren koordinazio eta eraginkortasun maximoa eta terrorismoaren aurkako mobilizazio soziala bilatzeko estrategiari laguntzeko manifestu bat bultzatzea.** Proposamen hau Erlijioarteko Euskal Kontseiluak aurkeztuko du eta bere helburua da organo hori lidergoaz hornitzea erlijioa aitzakiatzat hartzen duen edozein atentatu terroristaren eta indarkeria xenofoboaren, islamofoboaren edo arrazistaren aurkako erantzunean.

**5. Akordio-proposamena. Gizalegez Akordioa erlijioarteko esparrura hedatzea.** Gizalegez Akordio Proposamena Euskadiko Komunitate Islamiarrekiko Lankidetzarako Aholku Batzordearen baitan eta Erlijioarteko Euskal Kontseiluaren baitan aurkeztea.

**6. Proposamena. Gazteen eta balio partekatuen sare bat sortzea.** Euskadiko Komunitate Islamiarrekiko Lankidetzarako Aholku Batzordearen baitan, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarekin batera, tradizio kultural eta erlijiosoko gazteen sare bat sortzen laguntzeko proposamen bat aurkeztea, kulturen eta erlijioen arteko bizikidetza-balioak partekatzera eta sustatzera bideratua.

| 17 PROYECTOS DEL PROGRAMA DE TRABAJO | | | |
|---|---|---|---|
| **Eje 1** | **Eje 2** | **Eje 3** | **Eje 4** |
| **Cohesión social e integración intercultural e interreligiosa** | **Seguridad y actuación policial preventiva y de respuesta** | **Prevención socio-educativa de la radicalización violenta** | **Posicionamiento político interno e internacional.** |
| **Proyecto 1.** Cohesión social. Mantenimiento del compromiso con las políticas sociales, la convivencia intercultural, y sinergia con instituciones como Ikuspegi y Biltzen.<br><br>**Proyecto 2.** Convivencia interreligiosa. Impulso a la Ley de Centros de Culto, y a una agenda de diálogo interreligioso con un mapa y registro de confesiones religiosas.<br><br>**Proyecto 3**. Cultura de Derechos humanos. Promoción de la implicación ciudadana en el impulso de la diversidad y la movilización social frente al terrorismo y la xenofobia. | **Proyecto 4**. Prevenir. Lucha contra la radicalización, requiere actuar frente a la discriminación, y en el diálogo y la integración intercultural a largo plazo.<br><br>**Proyecto 5**. Proteger. Defensa de la ciudadanía y las infraestructuras, así como reducción de las vulnerabilidades existentes frente a un hipotético atentado.<br><br>**Proyecto 6**. Perseguir. Implica perseguir, investigar y detener a los y las terroristas, y actuar sobre sus fuentes de financiación o cualquier otro medio de soporte.<br><br>**Proyecto 7**. Responder. Mantenimiento de un protocolo actualizado para la respuesta operativa, la atención a víctimas y la información, ante un posible atentado | **Proyecto 8** Formación. Desarrollo de un módulo formativo sobre prevención de la radicalización violenta de pretexto religioso, o de naturaleza xenófoba, islamófoba o racista.<br><br>**Proyecto 9.** Educación. Desarrollo de los programas “Atención educativa al alumnado inmigrante”, “La escuela llama al mundo”, “Iniciativa Bizikasi”.<br><br>**Proyecto 10.** Divulgación. Impulso de guías locales de diversidad cultural y religiosa, y celebración de eventos de reflexión educativa en esta materia.<br><br>**Proyecto 11**. Intervenciones de carácter específico. Elaboración de módulos educativos de prevención de la radicalización en pisos tutelados y centros penitenciarios. | ***El posicionamiento político interno***<br>**Proyecto 12**. Movilización frente al terrorismo. de pretexto religioso o ante expresiones de violencia de carácter xenófobo, islamófobo o racista.<br><br>**Proyecto 13**. Compromiso con las víctimas del terrorismo. Elaboración de protocolo de atención solidaria y eficiente a las víctimas del terrorismo en caso de atentado.<br><br>**Proyecto 14**. Encuentro Social. Desarrollo de las iniciativas 7, 8, 9 y 10 del Plan de Convivencia y Derechos Humanos en materia de convivencia interreligiosa e intercultural.<br><br>***·El posicionamiento político internacional***<br><br>**Proyecto 15.** Acción Exterior. Defensa internacional de las tesis de este plan, y de manera muy especial en materia de coordinación policial y de inteligencia.<br><br>**Proyecto 16**. Acción Humanitaria. Compromiso de colaboración humanitaria en contextos afectados por la guerra, el terrorismo internacional o la violencia.<br><br>**Proyecto 17**. Acción preventiva. Apoyo a proyectos que actúen de modo preventivo en las regiones más afectadas por la guerra, el terrorismo internacional o la violencia. |

(*) El Gobierno Vasco consolidará una comisión interdepartamental para la dinamización e impulso coordinados de la gestión de este Plan de actuación con una visión de conjunto.

# RESUMEN DE LA PROPUESTA DE ACUERDOS ESTRATÉGICOS DEL PLAN DE ACTUACIÓN DEL GOBIERNO VASCO

**1. Propuesta de acuerdo para la creación de la Comisión Asesora para la Colaboración con las Comunidades Islámicas de Euskadi.** La función de esta comisión será la institucionalización vasca de la realidad islámica en Euskadi y de la cooperación entre esta y las instituciones vascas. Esta comisión trabajará sobre la voluntad compartida de reconocer y promover un islam vasco, tolerante, abierto y opuesto al terrorismo de pretexto religioso.

**2. Propuesta de acuerdo para la creación del Consejo Interreligioso vasco.** Su objetivo será promover una convivencia interreligiosa e intercultural basada en el respeto al pluralismo. Estarán representadas las confesiones religiosas con reconocimiento de notorio arraigo en Euskadi. Una de sus funciones será actuar como referente en la respuesta frente a al terrorismo de pretexto religioso y ante cualquier forma de xenofobia, islamofobia o racismo.

**3. Propuesta de acuerdo para la creación de un Foro de Identificación Temprana de Procesos de Radicalización.** Este foro estará dinamizado por la Ertzaintza y contará con participación directa de miembros de las comunidades islámicas en Euskadi y de expertos del Gobierno Vasco en materia educativa.

**4. Propuesta de acuerdo para el impulso de un Manifiesto de apoyo a la estrategia de búsqueda de la máxima coordinación y eficacia policial y de movilización social frente al terrorismo.** Esta propuesta será presentada en el Consejo Interreligioso Vasco y su objetivo es dotar de liderazgo a este órgano en la respuesta social frente a cualquier atentado terrorista de pretexto religioso y ante la violencia xenófoba, islamófoba o racista.

**5. Propuesta de extensión del Acuerdo Gizalegez al ámbito interreligioso.** Presentación de la Propuesta de Acuerdo Gizalegez en el seno de la Comisión Asesora para la Colaboración con las Comunidades Islámicas de Euskadi y en el seno del Consejo Interreligioso Vasco.

**6. Propuesta de creación de una red de jóvenes y valores compartidos.** Presentación en el seno de la Comisión Asesora para la Colaboración con las Comunidades Islámicas de Euskadi una propuesta para apoyar la creación, junto con el Consejo de la Juventud de Euskadi, de una red de jóvenes de tradición cultural y religiosa plural, orientada a compartir y promover valores de convivencia intercultural e interreligiosa.